

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ZEIN DA ZURE BEZEROA?

Enpresa sortzeko ideia bat pentsatzen ari ginenean, **gizartean dauden behar desberdinetan** zentratu ginen. Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun eta horregaitik hauen **behar batzuk** asetzea izango da gure funtzio nagusia. Gure enpresaren kasuan, bi bezero mota izango ditugu. Alde batetik, **Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleak** izango dira bezeroak eta bestetik unibertsitateak dauden herri edo hirietan pisuak alokagai jarri nahi dituzten pisu-jabeak daude.

Unibertsitateetako ikasleak gehienetan **lau urtez egoten dira pisuetan**, (karrera batek irauten duena, batzuetan **5 edo 6** urtera luzatu daiteke) eta askok unibertsitateetik gertu nahi izaten dute pisua. Bezero hauek **18 eta 24** urte artekoak izan ohi dira.



Normalean, **prest egoten dira ondasunak partekatzeko**, oraindik ikasten daudenez eta **ez dutenez diru-sarrerarik prest egon ohi dira ondasunak partekatzearen bidez gastuak murriztu ahal izateko**. Horrekin lotuta, pisuen **prezioa ezin da altua izan**. Gainera, alokatuko duten pisuak unibertsitateetatik gertu egon beharko dira, kasu honetan **Bilbo, Donosti, Gazteiz eta Arrasaten** dauden pisuei erreparatuko diegu. Lehenago aipatutako ezaugarriak betetzen dituzten emango dizkiegu lehentasuna. Datu hauek lagungarriak izan daitezke guk hauei pisuak gomendatzerakoan edo hauentzat pisu egokienak aurkitzerakoan aukera zehatzagoak eskaini ahal izateko hauen ezaugarriei egokituta.

Bestalde, gure beste bezeroak ikasleek alokatuko dituzten **pisuen jabeak** izango dira. Normalean, bezero hauen helburua pisua alokatzearen bidez etekin ekonomikoa ateratzea izango da. Agian, pisu jabeak prest egonez gero, gure web-orrian **aukera berezi bat** jarri ahal izango genuke etxebizitza bilatzen ari diren pertsonak beste modu batean ordaintzeko, **modu ekonomikoan izan gabe**. Zerbitzu honetan pisua bilatzen daudenek etxea zaindu, garbitu edo beste hainbat eguneroko lan egin beharko lukete etxe horretan logela bat izatearen truke.